

Goienka

EGUBAKOITZA • 2005eko uztailaren 22a • V. urtea • 209. zenbakia • DOAN BANATZEKOA



OÑATI
Abuztuan konponduko dute Zubillagatik Oñatirako bidea /6

ANA ERIZ / TURISMO TEKNIKARIA
"Gero eta turista gehiago dator Debagoienara, kultura eta natura ondareak ezagutzera" /7



ESKORIATZA
Amaral eraikuntza enpresako langile bat hil da istripuan /5



XABI URTZELAI

Aramaioiko rallysprinta zapatuan

Goma erre usaina nagusituko da bihar, zapatua, Aramaion jokatu den rallysprintean. Izan ere, laugarren urtez antolatuko du Aramaioko Azpikoracing taldeak rallysprinta. Aurten, gainera, joan den urtean baino lasterkari gehiago izango dira: 39 automobilek hartuko dute parte txapelketan. 14:30ean itxiko dute Arrixolako errepidea eta 15:30ean hasiko da proba. Aurten, noranzko berean egingo dituzte txanda guztiak. Arrixola baserrian hasiko dute rallysprinta. Handik Etxaguengo bidegurutzeraino egingo dute, baina Etxaguenera egin beharrean beherantz jarraituko dute, Gantzagako bidegurutzeraino eta, gero, herrirako bidea hartuko dute, aldapan behera. /10

ASTEKO GAIA: BIDAIA ESTILO KLASIKOA DA NAGUSI

Ibarrekoen oporretako ohiturak

Debagoiendar gehienek, EAEko biztanleek bezala, bidaiatzeko aprobetxatuko dituzte udako oporrrak. Ohitura hori ez da aldatu, bidaia mota aldatu ez den bezala: oro har, debagoiendarrek Espainiako kostaldera jotzen dute -Costa Brava, Benidorm, Salou...-, gehienetan autoz, eta Balear eta Kanariar uharteetara.

Azken urteotan, ordea, gero eta arrakasta handiagoa dute nazioarteko bidaiek: Kroazia, Egipto, Mayar Erribera... dira ibarrekoen gustuko leku batzuk.

Gazteek beste oporraldi estilo batzuen aldeko apustua egiten dute gero eta sarriago. Horiendako pista batzuk dituzte ibarreko gazte informazio bulegoek. /2-3

Arrasateko kutsadura legeak uzten duen baino 40 bider handiagoa da

Iaz egindako kutsadura neurketek erakusten dituzte datu kezgarriok: legeak esaten duena baino 40 bider kutsatuago dago airea Arrasaten. Partikula txikiekin lotutako kutsadura da arazo; gizakion

arnas aparatuari eragin diezaioket horrek. Autoen joan-etorria, enpresak, harrobiak eta obrak dira eragile nagusiak. Hala, arazoari aurre egiteko neurriak hartzea komeni dela argi ikusten dute Udalean. /6



IRAILERA ARTE, IRAKURLE!

Oporrak hartuko ditugu abuztuaren 25era bitartean. Hori dela-eta, GOIENKARIAren hurrengo zenbakia irailaren 2an argitaratuko dugu. Ordura arte, ondo igaro oporrak.

2. merkealdia
%50 eraino

SPORTLAND ARRASATE.
Garibai Etorbidea, 2-6.

SPORTLAND FORUM SHOPS
KIROLA ZEURE ESKURA

4x4
aukera zabalena

4QUATTRO4 Aukerako 4x4 ibilgailuak
Musakola auzoa 21 (Roneo parean) ARRASATE

605711576 / 943 79 52 32
E-posta.: 4quattro4@telefonica.net

Ibarreko gehienak, E

■ Oporretan, bidaiatu egiten du EAeko gehiengoak, eta ibarrekoek ere

■ Betiko joerak dira nagusi: Espainiako hondartzetara eta uharteetara

■ Nazioarteko bidaiak gora doaz urtetik urtera

LEIRE KORTABARRIA

Hondartza aldean oporrak, eguraldi eta prezio onak, autoz joateko moduko lekuak eta, gehienez ere, hamabost eguneko egonaldiak: udako oporrak prestatzeko orduan, debagoiendarrak ez dira nobedadeen lagun, eta Balear eta Kanariar uharteak –urteroko “klasikoak”, kontsultatutako bidai agentzia guztien esanetan–, Costa Brava –Espainiako kostalde merkeena–, Salou, Benidorm eta halako lekuak aukeratzen jarraitzen dute debagoiendar gehienek. Nabarmen aldatu den gauza bakarra da egonaldien iraupena: lehen abuztu osoa kanpoan pasatzen bazen, orain aste bat edo biko oporrak izaten dira.

Hala ere, azken urteotan, joera berriak indarrez datoz. “Bidaia internazionalak gero eta gehiago egiten dituzte. Aurten, Kroazia, Polonia, Senegal, Egipto, Madeira, Mayar Erribera edo Jordania askok eskatu dituzte”, dio Eroski Bidaiak agentziako Karmen Larranagak.



Gero eta debagoiendar gehiago joaten da Mayar Erriberara edo Punta Canara (argazkian), Karibe aldera.

GOIENKARIA

V. IKERKETARAKO BEKEN ETA LAGUNTZEN URTEKO DEIALDIA

2005



**INGURUMENA ETA IRAUNKORTASUNA:
GARRAIOA ETA/EDO ENERGIA
BERRIZTAGARRIAK.**



**NUTRIZIOA
GIZENTASUNA
ETA OSASUNA**



**ELIKAGAIEN
SEGURTASUNA**

Aurkezteko epea: 2005eko irailaren 30 arte
Oinarriak eta informazioa: www.fundaciongruperoski.es



FUNDACIÓN
EROSKI

spainiako kostaldera

Bidaiatzeko moduari dagozkien datuek berresten dute ibarrekook bidaiari tradizionalak garela: gehienak bidaia antolatuetan joaten dira eta, Real Automovil Club (RAC) erakundeak egindako ikerketa baten arabera, EAeko hamar bidaiaririk bederatzitik bidaia agentziaren bidez joaten dira oporretan. Ikerketa berak dioenez, euskaldunen %61,2k bidaiatzen dute oporretan; bidaia horietatik %73,5 Euskal Herrira edo Espainiara dira; %75ek autoz egiten dute bidaia; eta %78 inguru hoteletan egoten dira. Horrez gain, erdiak baino gehiagok bikotekidearekin bidaiatzen dute oporretan; %30ek, seme-alaba txikiekin.

Bidaia estiloak zerbait alda daitezke adinaren arabera. Barcelo agentziako Alaine Arrubarrenak dioenez, "familiek kostaldea, uharteak... aukeratzen dituzte, eta gazteek, denetarik zerbait: zirkuituak, Europatik kanpo irten...". Motxila hartu eta euren kabuz Europan barrena trenez bidaiatzea boladan dago, batez ere gazteen artean, baina oraindik ez da gehiengo baten aukera. Bestalde, Debagoieneko hainbat gazte Euskal Herrian edo ibarrean bertan gertzen dira, herrietako jaiez eta udako lasaitasunaz gozatuz.

PREZIOAK, ERAGIN HANDIA


Debagoieneko bidaia agentzientzako, lan handiko egunak dira oraindik, eta hala izango da abuztu erdira arte. Gehienek denboraz egiten dituzte erreserbak, baina azken orduko bidaiariak ere asko izaten dira. Karmentxu Larrañagaren esanetan, "azken orduko eskaintzen bila asko etortzen dira. Jende askori ez zaio hainbeste axola nora joan, nahi dutena da eskaintzaren bat harrapatu". Prezioak eragin handia du debagoiendarrok bidaia aukeratzeko orduan, eta aldea nabarmena da: esaterako, Kroazian bira bat 1.275 euro da, baina 800 inguru beherapenetan.

Bestetik, munduko gertakari politiko edo naturalek eragin txikia dute. Hala, aurten ere jende asko joango da tsunamiak astindutako Tailandiara, edo urakana jasaten ari den Mexiko aldera. Karmentxu Larrañagak dioenez, "beti igartzen da horrelakoen eragina, baina jendea berdin-berdin joaten da".

*Askok ez diote
begiratzen lekuari,
bidaiaren prezioari
baizik, agentzien
esanetan*


Gazteek elkarri egiten dizkioten gomendioak

Gomendatzen Dizut... lehiaketako deialdia egin berri dute Arrasate eta Bergarako gazte bulegoek. Laster, www.aizue.com webgunetik ere izango da parte hartzeko modua. Joan den uda eta Aste Santuko deialdietan batutako aholkuak bulegoetan daude, edozeinen eskura. Batzuek argazkia ere bidali zuten. Hemen jaso ditugu lehiaketara aurkeztu zituzten gomendio batzuk.



BREITAINIA / Eider Montalban / Gasteiz

Erdi Aroko giroa, orduko herri eta gazteluak, "primeran" gorde dituzte Britainian, eta horiek ikustea gomendatzen du Eiderrek. Bestalde, udal kanpalekuak ere aholkatzen ditu.



KANSENIA (KONGO) / Garikoitz Madinabeitia / Arrasate

Afrikako toki hau bisitatzeko gomendatzen du Garikoitzek, "espe-rientzia gogorra den arren, ederra delako" eta "bizitzeko beste filosofia bat delako".



ATXARREKO SAN PEDRO (BIZKAIA) / Lorea Sainz / Markina-Xemein

Ibarrangeluko Akorda auzoko gune honetatik "bista zoragarriak" daude, Lorea Sainzen esanetan. Urdaibai osoa ikusten da, Mundaka parean dagoela, Laga, Laida eta Bizkaiko Golkoa. Akordako jatetxe eta nekazal turismoak ere gomendatzen ditu.



PANTIKOSA (PIRINIOAK) / Eider Montalban / Gasteiz

Udan, Pantikosako paisaia ederretaz gozatzeko aukera dago eta, mendizale izanez gero, igoera politak egin daitezkeela dio Eiderrek. Aterpeak lortzeko aukera onak daude.



ISTANBUL / Agurtzane Iñurrategi, Ana Usandizaga / Aretx., Arrasate

Istanbuleko lur azpiko termak, Erromatar Inperio garaikoak, gomendatzen dituzte. Meskitak ere bisitatzeko merezi du, eta han pareko jatetxea ere gomendatzen dute bi lagunok.



IRATI AGIRREAZALDEGI

Hiri hondakinen gaikako bilketa zentroak dira garbiguneak; ibarrean hiru daude. Argazkian, Bergarakoa.

Ibarreko garbiguneek txandaka emango dute zerbitzua abuztuan

Arrasate, Bergara eta Oñatikoak 09:00etatik 13:30era zabalduko dituzte

IRATI AGIRREAZALDEGI

Zerbitzu askok ordutegi aldatuak izaten dituzte abuztuan. Mankomunitateak esan digutenez, ordea, zabor eta hondakin bilketak orain artean bezala utziko dituzte. Garbiguneetan, ordea, txandaka emango dute zerbitzua.

Ohiko ordu eta egunetan batuko dituzte etxeetako zaborrak, hondakin handiak, papera eta kartoiak, ontziak, beira, pilak, olioak zein ehunak. Bergarako, Arrasateko eta Oñatiko garbiguneek, ordea, abuztuan txandaka eskainiko dute zerbitzua. Bergarakoa martitzen eta egubakoitzetan egongo da zabalik; Arrasatekoa astelehen eta egunetan; eta Oñatikoak eguazten eta zapatuetan. Guztiak 09:00etatik 13:30era.

Garbiguneak hiri hondakinen gaikako bilketa zentroak dira. Arriskuak ekiditeko eta birziklatzeko jasotzen dira bertan. Eskualdeko herritarrentzat dira, baita gremioentzat eta denda eta bulegoentzat ere. Hala ere, ez da onartuko industrian sortutako hondakinak.

Garbiguneetako zerbitzua doan da. Hondakinak nork bere ibilgailuarekin eramango ditu eta zaintzaileak esandakoari kasu

Garbiguneetako zerbitzua doakoa da, baina hondakinak norberak eramane behar ditu

egin. 3.500 kilo baino gutxiagoko ibilgailuek bakarrik deskargatu ahal izango dituzte hondakinak garbigunean.

Erabiltzaile bakoitzak astean gehienez 750 kilo hondakin utzi ditzake; hondakinak hustu ostean, beharrezkoa baldin bada, ingurua garbitu beharko da.

EPELEKO ZABORTEGIA

Abuztuan Epeleko zabor biltegian ere ordutegia murriztuko dute; 09:00etatik 13:00etara egongo da zabalik.

Epeleko zabortegia ibarreko enpresentzat da. Industrian edo eraikuntzan sortutako hondakinak, CER-Hondakinen Europako Katalogoan hondakin arriskuak katalogatu gabeak, eta Mankomunitateak jarritako onarpen-probak gainditzen dituztenak jasotzen dira bertan.

finalerako emaitzak eta bat-bateko zein idatzizko bertso hautatuak irakurtzeko aukera izango da.

Debagoiengan jokatu izan dira Gipuzkoako Eskolarteko hainbat kanporaketa; eta finalisten artean ere egon da ibarreko ordezkariak: Leintz bertso eskolako Sarasua anaiak, Felix Inurrategi, Jon Inaki Izarzelaiak, Danel Gokolea, Arantzazu Loidi, Mikel Uribeetxeberria, Nagore Inda, Saioa Arando, Amaia Agiriano, Agurtzane Inurrategi eta Larraitx Iparragirre; Bergaratik Ainhoa Agirreazaldegiren eta baita Oñatiko bertso eskolako taldea ere. Horietako batzuk finalista ez ezik txap

peldun ere izan dira bat-batean. Bertso paperetan ere Debagoienara etorri izan da txapelik eta aipamenik.

ARGAZKIAK ETA IRITZIAK

Testuak argazkiz hornitu dituzte; guztira, 700 argazkitik gora jaso ditu liburua.

Bestalde, txapelketaren gaineko iritziak irakur daitezke. Iritzi zutabeak 60 dira eta bertan azalduko dira Jon eta Aitor Sarasuaren, Ainhoa Agirreazaldegiren, Jon Inaki Izarzelaiaren, Arantzazu Loidiren eta Patxi Gokolearen hitzak, beste hainbatentz artean.

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren liburua kalean da

I.A.

Atzo, eguna, aurkeztu zuten Donostian *Praka motxetan* liburua. Lan horrek Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren 25 urteko ibilbidea jasotzen du. Tartean hainbat debagoiendarren argazkiak eta iritziak egongo dira.

Txapelketa horretako parte-hartzaileen izenak azaltzen dira bertan, final guztietan parte hartu dutenenak, hain zuzen ere; handien eta txikien mailan. Bertso paperetan irabazle izan direnenak ere jasotzen ditu. Izenekin batera

ELKARRIZKETA/ 'OÑATI.IRUDIAK' LIBURUA

JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA/ARRASATE ARGITAN

“Oñati zer eta nolakoa den irudi bidez azaldu dugu”

I.A.

Asteon aurkeztu dute *Oñati.Irudiak* liburua. Gaur egungo Oñatiko erretratuak jaso ditu liburua. Arrasate Argitan argazkilariek elkarrekin egin du liburua eta bertako kide Jose Felix Diaz de Tuesta eman dizkigu azalpenak.

Zer dela eta horrelako liburu bat Oñatirako?

Orain dela bi urte Arrasatekoa kaleratu ostean, hainbat harreman izan genituen Oñatiko lagunekin. Ikusi genuen inguru hauetan ez zegoela gure herrien alde modernoaren berri emango zuten euskarririk, eta Oñatik horrelako zerbaiten beharra zuen.

Zer jasotzen du liburua?

Oñati zer den eta nolakoa den irudi bidez azaltzen saiatu gara; eta irudien osagarri testu laburrak egin ditugu bost hizkuntzatan. Irudietan agertzen dira batik bat edozeinek Oñatin barrena doala ikus ditzakeen gauzak. Oñatiko natura, eraikinak, pertsonaiak, jaiak eta lan esparrua.

Zein helbururekin kalera-tu duzue?

Herritik kanpo herriaren irudia saltzeko produktua sortu nahi izan dugu. Oñatik proiektio handia du kanpoan. Kanpotarrak Oñatira datozen eramateko zerbait izatea da asmoa, baita oñatiarrek kanpora doazenean ere.



“Herritik kanpo herriaren irudia saltzeko produktua sortu nahi izan dugu”

Arrasaten kaleratu zenuen lehenengo, Oñatin orain; ibarreko gainontzeko herrietan ere egiteko asmoa duzue?

Gure hasierako asmoa Arrasatekoa ongi egitea zen; behin hori aterata Oñatiko etorri zen, eta beharbada irailetik aurrera, datozen hilabeteetan hasiko gara beste zerbait gertatzen, baina oraindik ez dago ezer erabakita.



Hiltegia Bizirik plataformaren protesta

Zintzarriekin zarata eginez eta *Gizartearen onurarako, hiltegia bizirik* lelopean, protesta ekintza egin zuten Hiltegia Bizirik plataformako kideek eguaztenean Arrasateko udaletxearen atarian. Bertan batzarra zuten Mankomunitatekoek, eta plataformakoek ekintza horrekin adierazi nahi izan diete ez daudela ados hiltegiaren kudeaketarekin orain arte bezala jarraitzearekin. “Alkate jaunak, sektoretik ez dugu onartuko apropos bultzatutako zerbitzuaren porrotaren ardura”, esan dute. /I.A.

Mankomunitateak Arrasaten egin zuen hileroko ohiko batzarra

Jaurlaritzari luzapena eskatuko diote hiltegiako instalazioak egokitzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI

Hilero bezala ohiko batzarra egin zuten Debagoieneko Mankomunitateko ordezkariak eguaztenean Arrasateko udaletxean. Zerbitzu orokorrak, lurralde antolamendua, ingurumena, hiltegia eta kirolak izan ziren bilerako gaiak.

Arrasateko udaletxearen atarian kontzentratutako Hiltegia Bizirik plataformako oihu, txistu eta zintzarri hotsen artean sartu ziren Mankomunitateko ordezkariak, eta osoko bilkuren aretoan egin zuten batzarra.

Zerbitzu orokorren atalean, Giza Baliabideen Arrazionalizazio Programa onartu zuten. Gero, Nafarroa etorbideko hainbat eraikinen erreforma proiektua idazteko lehiaketa izan zuten hizpide; bertan Mankomunitatearen eta Udaltzaingoen egoitza kokatzea da asmoa. Gaia udaletan eztabaidatu eta irailean berriz hitz egitekotan geratu ziren.

Lurralde antolamenduari dagokionez, onartu zuten Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailarekin hitzarmena sinatzea Debagoieneko Mugikortasun Iraunkorrerako Plana finantzatzeko. %25eko dirulaguntza emango du Jaurlaritzak.

Ingurumenaz hitz egitean, erabaki zuten papera, ontziak eta pilak biltzeko eta garraiatzeko zerbitzua Cespari ematea; ehunkiena, berriz, Emausi.

Eta azkenaldian horrenbeste zeresan ematen ari den hiltegiak



Lore eta zuhaitz hondakinak batuko dituzte Akeiko hondakindegian.

ere izan zuen tartea bileran. Abereak hil, prestatu eta banatzeko zerbitzuak zeharkako kudeatzeko administrazio kontratua luzatzea ebatsi zuten; baita Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari luzapena eskatzea hiltegiako instalazioak egokitzeko.

**Mugikortasun Plana
finantzatzeko
hitzarmena
sinatuko dute
Jaurlaritzarekin**

LORE ETA ZUHAITZEN HONDAKINDEGIA
Bestalde, Mankomunitateak berriz ipiniko du Arrasaten, Akeiko gunean Inausketa eta lorezaintzako hondakindegia, bertan kutsatutako lurzorua berreskuratzeko obrak amaitu ostean.

Ibarreko herrietako garbiketako eta lorezaintzako zerbitzuek erabili ahal izango dute eta baina partikularrek ere, Mankomunitatera aurrez deituta. Hondakindegiko ordutegia 07:30etik 14:30era bitartekoa da.

Lekuari ahalik eta etekin handien ateratzeko pilo altuak egitea gomendatu dute eta ezin dira 12 zentimetro baino diametro zabalago enbor edo adarrak utzi.

Informatika-zaleen jaia izango da asteburuan Barakaldon

Aurtengo Euskal Encounterrean 5.500 lagun izango dira

I.A.

Gaur hasi eta astelehenera bitartean Barakaldoko Bilbao Exhibition Centre erakustazokan egingo da Euskal Encounter jaia: Euskal Herriko, Espainiako zein atzerriko informatika-zaleentzat urte osoko erreferentzia garrantzikoena den festa.

Jai horretan 5.500etik gora parteidek 3.100etik gora ordenagailurekin etengabe jarduteko aukera izango dute 96 orduan. Euskal Encounterko parte-hartzaileen helburua da ondo pasa-

tzeaz gain ikastea. Eta horretarako esperientziak trukatzeko informatika-zaleekin eta hitzaldiak entzuten dituzte.

DEBAGOIENDARRAK

Ibarreko parte-hartzaile kopurua zehazterik ez badago ere, jakin badakigu debagoiendarrik izango dela informatika jaiaren.

Iaz han izan zen Aitor Arantzabal bergararrak, esaterako, hiru lagunekin joango dela esan digu: "Asko gustatu zitzaigun, eta ondo pasatzera joango gara berriz".

DEBAGOIENEAN LABUR

Ereitten taldeak salatu du lau zinegotzik soldata kobratzen dutela araudia bete gabe

Oñatiko Ereitten Herri Ekimenak salatu du lau zinegotzik soldata kobratzen dutela aurrekontuen udal arautegia bete gabe. Zera adierazi dute: "Lan jarduera egunerokoa balitz bezala kobratzen dute, diru kopuru hori jasotzeko egin beharrekoak ez egin arren". Hazienda batzordean ere salaketa horixe egin zuten; EAJ-EAk erabaki du zinegotzietara arautegiaren berri ematen duen eskutitza helaraztea. Iñaki Galdos (EAJ-EA), Carmelo Perez (EB), Juan Mari Miner (PP) eta Angel Hernandez (PSE-EE) dira zinegotziok.

Eraikuntzako langile bat hil da Eskoriatzan izandako lan istripu baten ondorioz

Martitzen arratsaldean, Eskoriatzako obra baten lanean ziharduela istripua izan zuen Amaral enpresako M.G.F. 44 urteko langile portugaldarrak. Lau metroko altueratik erori eta kolpe handia hartu zuen. Ospitalera eraman zuten, eta eguaztenean hil zen, izandako zaurien ondorioz. Gaur, egubakoitza, eguerdian, kontzentrazioa egitekoak ziren Eskoriatzako zaharren egoitzaren aurrean.

0 km eta erabilitakoak

Volkswagen Multivan TDi /00
Volkswagen Multivan TDi /99
Ford Transit TDCi /01
Ford Transit TDCi /02
Peugeot 307 HDi /02
Peugeot 306 HDi /01
Peugeot 206 HDi /01
Ford Focus Wagon TDi /02
Ford Focus Wagon TDi /02
Toyota Wagon DHD /02
Ford Galaxy TDi /02

Citroën Berlingo HDi /02
Seat Ibiza SDi /02
Ford Fiesta TDCi /04
Subaru Imp 2.0i TT /97

4x4:

Toyota Land Cruiser /99
Toyota Land Cruiser /01
Toyota Land Cruiser /00
Mitsubishi /98
Opel Frontera Sport /02

M MENDIOLA

San Andres 10 D
Tel.: 943 77 21 00
ARRASATE

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Irailetik aurrera
7 eta 9 urte
arteko umeei

Ortodontzia azterketa DOAN

**M. Astiazaran Etxebarria
H. Solozabal Saez**
Mediku estomatologoak

Iparragirre 12
943 76 27 95 BERGARA



BIDELAN, bai esan

900 500 300

● BIDELAN, Gipuzkoako AP-1 eta A-8 autobidea ustiatzeaz, mantentzeaz eta zaintzeaz arduratzen den enpresa.

ANTZUOLA

Atzo, eguena, batzar orokorra egitekoak ziren AKEkoak

Urteko batzar orokorra egitekoa zen Antzuola Kirol Elkarte atzo, eguena. Hainbat berritasun proposatzekoak ziren hantxe; besteak beste, bazkideen kuota igotzea eta jokalariei ere kuota bat ezartzea. 180 bazkide ditu AKEk, eta gaur egun, 15 euro ordaintzen dute. Aurrerantzean, 20 euro kobratuko zaie. Jokalariek ere kuota ordaindu beharko dute, 60 euro urtean.

Elkarteak 30.000 euroko aurrekontua dauka, eta neurri horiekin, helburua da aurrekontuari aurre egin ahal izatea. /A.I.

ARAMAIO

Postal lehiaketa abuztuan eta txalaparta ikastaroa irailean

Txirritola Euskara Elkar-teak Postal Lehiaketa antolatzen du, bigarren urtez. Antolatzaileek gura dutena da jendeak euskaraz idaztea. Horrenbestez, parte hartzeko egin behar dena horixe da: postal bat aukeratu, euskaraz berba batzuk ipini eta, beste barik, honako helbidera bidali: kultura etxea, Nardeaga kalea z/g 01160, Aramaio. Irabazleak landa-etxe batean asteburua izango du opari.

Bestalde, irailerako txalaparta ikastaroa iragarri dute. Interesa dutenek herriko tabernetan eman dezakete izena. /U.M.

ELGETA

Argindarra moztuko dute uztailaren 25ean Salbador kalean

Astelehenean, uztailaren 25ean, Salbador kalean argindarra moztuko dutela jakinarazi digute Iberdrola argi konpainiatik. Goizean, 08:00etatik 09:00etara egingo dute etena; arratsaldean, berriz, 18:00etatik 19:00etara. Argindarraren mozketa saihesbideko lanak direla eta egingo dute, eta konponketak egin ahala zerbitzua normaltasunez eskainiko dutela esan dute Iberdrolakoek. Mozketa horrek sor ditzakeen eragozpenengatik barkamena eskatu dute. /I.A.



OÑATI

Abuztuan hasiko dira konpontzen Zubillagatik Oñatirako bidea

Abuztuan hasiko dira konpontzen Elorregitik Oñatira bitarteko errepidea. Zubillagatik Belatxara gasolindegira parerainoko errepide zatia konponduko dute, zehazki, bi kilometro inguru. Zubillagako zatia auzo barruko errepide zatia da, errepide zaharra. Maiatzean onartu zuen Diputatuen Kontseiluak GI-2630 errepideko zati hori zaharberritzea. Lanak abuztuan hasiko dituztela esan dute orain, baina ez dute eguna zehaztu, ez baitakite hasita dituzten lanak noiz bukatuko dituzten. Bost hilabeteko epea dute lanak amaitzeko eta bitartean txandaka emango dute pasoa. Ez dute errepidea erabat itxiko, baina bai errepidearen zati bat, tarteka. Lan horien aurrekontua 743.000 euro da. /OIHANA ELORTZA

BERGARA

Teresa Zabaltza 5et taldearen emanaldia gaur gauean Espoloian

Teresa Zabaltza 5et taldeak amaiera emango dio gaur, egubakoitza, Udako Gauak programako jazz emanaldi sortari. Teresa Zabaltzak eta haren taldekideek *Euria* izenburuko diskoa aurkeztuko dute Espoloiko kioskoan, 22:30ean. Teresa Zabaltza piano jole iruindarrarekin batera, Alejandro Mingot (gitarra), Miguel Villar *Pintxo* (saxo tenorea), Josu Izagirre (kontrabaxua) eta Hasier Oleaga (bateria) ari-tuko dira gaurko emanaldian.

2004ko neguan *Euria* izeneko diskoa kaleratu zuten eta aipatutako lanean Carme Canela kantariak hartu zuen parte. Diskoan, bi urtean zuzenean jorrotutako lana bildu du Zabaltzak.

Swing, txa-txa-txa eta bolero doinuek bat egiten dute jazz pasarteekin euren abestietan. Zabaltzak azpimarratzen duenez, "taldeko %20 baino ez naiz. Abestiak nireak dira, gustatzen

zaizkit, baina nik baino askoz gehiago dute esateko taldekideek beren tresnekin. Ondorioz, tarte handia uzten diet jotzeko".

ABUZTUAN, ZINEMA PLAZAN

Udako gauak programaren barruan, abuztuko eguenean aire libreko zinema emanaldiak egingo dituzte San Martin plazan: abuztuaren 4an *Las mujeres perfectas*; hilaren 11n *Beckham izan nahi dut*; hilaren 18an *Los padres de él* eta, azkenik, abuztuaren 25ean *George eta herensugea* emango dituzte. Zinema emanaldiok 22:00etan izango dira. /E.M.

Zertzelada

Udako Gauak programaren barruan, abuztuko eguenean aire libreko zinema emanaldiak egingo dituzte San Martin plazan

ARRASATE

Arrasatek 40 bider gainditzen du legezko kutsadura muga

2003-2004ko kutsadura neurketek erakusten dituzte datu kezagarriok. Partikula txikiekin lotutako kutsadura da arazo; giza-kion arnas aparatuari eragin diezaiokete horrek. Autoen joan-etorria, enpresak, harrobiak eta obrak dira eragile nagusiak.

Gauzak horrela, ahalik eta lasterren arazoari aurre

egiteko neurriak hartzea komeni dela argi ikusten dute Udalean. Besteak beste, irailean osoko bilkura berezia egingo dute, Arrasaterako Mugikortasun Plana onartzeko. Haren bitartez, adibidez, urbanoaren erabilera bultzatuko dute eta igogailuak ipini herriko gorengo auzoetara joateko. /U.M.



Besteak beste, automobila larregi erabiltzen dugu.

ARETXABALETA

Txosna-guneari indarra emango diote aurtengo Andramaixetan

Abuztuaren 14an hasi eta 17ra bitartean Andramai-xak ospatuko ditugu Aretxabaletan. Berrikuntzak dakartza, gainera, eguntan banatuko duten egitarauak. Jaiei hasiera emateko pregoia Aretxabaleta Abesbatzak egingo du, eta Andramari egunean Agustindar elkarteari omenalditxo egingo dio Udalak.

Bestalde, gazteendako txosna-gunea indartu egin gura izan du Jai batzordeak. Hona egongo diren ekitaldi batzuk: bertsolariak eta sagardoa, rock kontzertuak, makarroi jana eta DJ Bullen kontzertua. /M.A.

ESKORIATZA

Zabortegeari beste kokapen bat emateko eskatu diote Aldundiari

Desjabetze prozesuaz gain, zabortegearen kokapenaren gainean ere arazoak ikusten ditu Udalak autobidearen auzian.

Astelehenean amaitu zen autobidearen gainean alegazioak egiteko epea. Azken zatia ez da Eskoriatzako udalerrian sartzen, baina Udalak jakin duenez zabortege bat eraikitzea proposatzen du Aldundiari. Hori dela-eta, ingurumenari egin diezaioketen kaltea aztertze-ko ikerketa abiarazi dute eta administrazioari eskatu diote zabortegeari beste kokapen bat bilatzeko. /J.B.

LEINTZ GATZAGA

Autobus geltokia egin gura dute irailean hasiko dituzten lanetan

Irailean hasiko dituzte herriko urarendako, gasarendako eta saneamendurako hodi berriak sartzeko lanak, eta horrekin batera, herriko goiko sarrerako errepide zatia ere zabaldu egingo dute.

Sarrera hobetzea da asmoa, baina autobus geltokia ere jarri gura dute.

DORLETAN, KANPALEKUA

Herriko gaztetxoek gaur amaitu dituzte udalekuak, baina asteburuan Dorletan izango dira, gurasoekin batera egingo duten kanpalekuan. /X.U.

Oporren usainean, udako opor-
rrak Debagoiengan pasatzen dituztenei buruz gal-
detu diogu Ana Erizi, Mankomunitateko turismo teknikariari. Gero eta jende gehiago etortzen ei da, eta kexa gutxiarekin bueltatzen ei dira etxera.

OIHANA ELORTZA

Hasita dago udako turismo denboraldia Debagoiengan?

Bai, ekainean hasi genuen. Arantzazuko informazio puntua jarri genuen ekainean eta hantxe dugu gure eskualde osoko turismo informazioa.

Foileto batzuk argitaratu ditugu eskualde osoan, ekainetik irailera bitartean izango diren ekintzekin. Turismo bulegoen eta museo eta eraikinen ordutegiak ere ageri dira bertan.

Noiz bukatuko da?

Irail bukaeran. Lau hilabete irauten du udako denboraldiak.

Non banatu dituzue iragarki eta informazio orri horiek?

Euskal Herri guztian. Turismo bulegoetan, jatetxeetan, museoetan, agentzia bidaietan eta antzerako tokietan banatu ditugu. Eskualdean bertan ere, tabernetan eta jatetxeetan banatu ditugu.

Euskal Herritik kanpo saltzen duzue Debagoiena?

Urtean zehar Jaurilaritzak eta Diputazioak egiten dituzten promozio kanpainen bidez saltzen dugu, gehienbat. Madrilen, Bartzelonan eta Zaragozan, besteak beste, egiten dituzten azoketara Euskadiko informazioa eramaten dute eta tartean, Debagoienekoa. Irailaren bukaeran, adibidez, Bartzelonara goaz; urrian Zaragozara eta Olotera eta azaroan, Bartzelonara berriro baserri turismoaren inguruko azoka batera eta baita Valladolidera ere.

Bertakoei ere zuzentze diezue turismo eskaintza?

Bai, bai. Aurten, bisita gidatuen egitaraua prestatu dugu eskualdeko ikastetxeetarako. Kanpokoendako zein bertakoendako da gure turismo eskaintza.

Zenbat informazio puntu daude eskualdean?

Debagoienekoa Arantzazun dago eta oporren sasoian egoten da zabalik. Udan, Oñatiko Unibertsitatean ere jartzen dute beste informazio puntu bat. Bestalde, Oñatiko turismo bulegoa urte guztian dago zabalik eta Bergarako opor garaietan eta zubietan. Gatzagan ere badago eta Eskoriatzan oraintxe jarri gura dute bat.

Nongo jendea etortzen da Debagoiena ezagutzera?

Madrildik eta Kataluniatik etortzen dira batez ere, baina zabaltzen ari da. Besteak beste, Valentziatik eta Gaztela eta Leondik ere gero eta gehiago datoz. Euskal Herritik ere jende asko etortzen da eguna eskualde honetan pasatzera.

Atzerritarrak ere etortzen dira?

Proporzioan gutxiago, baina etortzen dira, bai. Atzerritarrak frantsesak eta italiarrak dira gehienbat. Hala ere, munduko beste bazter askotatik ere heltzen dira.

Joan den udan, nondik etorri zen jende gehien?

Euskal Herritik, %54; Estatutik, %33; atzerritik, %13. Arantzazun jasotako datuak dira horiek, Debagoieneko informazio puntuan.

Arantzazu ikustera etorritakoak?

Bisitari gehien hantxe jasotzen dituzte, bai. Handik, eskualdeko gainerako



O.E.

Ana Eriz

MANKOMUNITATEKO TURISMO TEKNIKARIA

“Arantzazun kutxazaina falta dela, hori da jaso dugun kexa bakarrenetakoa”

ESKAINNTZA ZABALTZEN DOA

“Bisita gidatuak ez dira bazter guztietara heltzen, orain arteko eskaintza mugatua da; gehiago dugu erakusteko, eta eskaintza zabaltzeko antolatuta eta prestatu behar dugu”

TURISMOA EGITEKO MODUA

“Eguzkia eta hondartza ez ezik, ondare kulturala eta naturala ere ezagutu nahi du jendeak orain, eta hori ona da guretako; urtetik urtera jende gehiago dator Debagoienara”

puntu eta herrietara bideratzen ditugu turistak: Gatzagara, Bergarara...

Zertara etortzen dira?

Gure kultura eta ondare historikoa ezagutzera. Naturak ere asko erakartzen ditu: mendi ibilaldiak egitera eta Aizkorriko parajeak ikustera asko etortzen dira. Ostaldea kostaldean dutenak ere etortzen dira egun pasa hona. Distantziak ez dira handiak Euskal Herrian, eta toki batean zein bestean ostaldu hartu, hara eta hona ibiltzen dira turistak. Eta horietako asko etortzen dira hona.

Zein da hona datorren turistaren profila?

Ditugun datuek diote gehienbat bakar-lariak, bikoteak edo talde txikiak direla. Bidaia agentzien bitartez antolatuta taldeak ere gero eta gehiago datoz. Arantzazura, adibidez, talde handiak datoz, erro- mes tokia ere badelako, baina normalean talde txikiak eta bakar-lariak dira nagusi.

Zer dakite gure eskualdeari buruz?

Gehienek elementu bat ezagutzen dute: Arantzazu, Arrasate edo Gatzaga. Hori

ikustera datoz, eta, bide batez, inguruei buruzko informazioa eskatzen dute. Hiru Santutegiaren Ibilbidea, esaterako, askok ezagutzen dute.

Zenbat lehenago hasten dira hemengo ostaluetan erreserbak egiten?

Ez dakit. Hala ere, azken orduko turista asko datoz; egun pasa datozenak, gainera, horietako asko. Bestalde, kostaldea betetzen den heinean etortzen dira barnealdera.

Zer igartzen dute faltan?

Arantzazun kutxazaina falta dela kexa-tu dira asko, baina egia esan, ez dugu kexa askorik jaso.

Eta zer txalotzen dute?

Egia esan, ez dakit. Nik uste dut paisaiak harritzen dituela gehien.

Eskualdea da ezaguna bere izaera industrialagatik. Kooperatibak, enpresak eta errepideak dira Debagoienaz dituzten erreferentziak, eta hemengo inguruak eta paisaia ikusten dituztenean, txundituta gelditzen dira. Baserri, auzune, elizate eta ondare artistiko asko eta ederrak ditu eskualde honek, eta horrek harrapatzen du turista.

Zer dute ikusteko hemen?

Hemengo ondarea, batez ere. Hala ere, oraindik ez dugu erakusten dugun guztia. Proiektu batzuk martxan daude, Arrikrutzeko kobak, adibidez, eta horiek ere sartuko ditugu gero gure eskaintzan.

Hala ere, toki batzuk kanpoan gelditzen dira. Ondare zabala dugu, baina bisitatzeko aukerak mugatuak dira, hainbat toki ikusteko ez dago prestaketarik. Ermita, erreta eta txoko asko ditugu ikusteko, baina bisita gidatuak ez dira guztietara heltzen.

Ondarea badugu, bai naturala bai kulturala, erakusten duguna baino gehiago dugu eskaintzeko, baina hori guztiori artikulatu, prestatu eta antolatu egin behar da. Urtetik urtera, ordea, hobetuz goaz.

Azken urte hauetan asko aurreratu da, baina eskaintza mugatua da oraindik.

Ostalaritza gaia ere uda oro aipatzen da. Turistek ez ei dute bazkaltzeko eta afaltzeko tokirik aurkitzen, baina ostalariek ere, normala den moduan, herrian jende gutxiengatik gelditzen den sasoian hartu nahi dituzte oporrak. Nola konpon daiteke arazo hori?

Herri batzuetan bestetan baino txikiagoa izan daiteke eskaintza, agian. Edozelan ere, aztertzen ari garen gaia da.

Aldatu egin da turismoa egiteko modua azken urteotan?

Baietz uste dut. Eguzki eta hondartzarekin lotzen ziren lehen beti oporrak. Orain, ordea, ondare kulturala eta beste elementu batzuk ere ezagutu nahi dituzte turistak. Debagoienara, adibidez, gero eta turista gehiago datoz, eta hemen, behintzat, garbi ikusten da turismoa egiteko modua aldatu egin dela.

Zer moduz doa ekainetik orain arteko turismo denboraldia?

Oso ondo, egia esan.

Jende asko etorri da?

Euskal Herrikoak eta atzerritarrak dabilta gehienbat. Estatuko turistak baino lehenago mugitzen dira atzerritarrak. Talde batzuk ere egon dira dagoeneko, baina esan bezala, bikoteak eta talde txikiak dira hurbiltzen diren gehienak.

Bidaia agentziekin ere egiten duzue lan?

Ikusten da gero eta mugimendu handiagoa dagoela bidaia agentzietan.

Bestalde, Diputazioak badu hitzarmen bat hainbat bidaia agentziarekin, eta sorta horietan sartzen da gure eskaintza. Horrek asko laguntzen digu, egia esan, turista horiek gure eskualdea zabaltzen dutelako hemendik kanpora.



Bainu altzari eta osagaiak
•
Hidromasaje kabinak
•
Manparak
•
Eraikuntzako materiala



BILTEGIA/BULEGOAK:

Meatzerreka 6 • Arrasate • 943 79 14 28 • Faxa.: 943 79 40 43

ERAKUSKETA:

Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20

www.goiena.net-eko

BLOG KOMERTZIALAK

**Zure negozioa Interneten egoteko
modu errazena eta merkeena**

Prezioen eta ikastaroen
gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak
Posta-e: azabarte@goiena.com
Tel.: 943 76 92 70

www.goiena.net/blogak/4quattro4
www.goiena.net/blogak/arregi
www.goiena.net/blogak/atai
www.goiena.net/blogak/azkarate
www.goiena.net/blogak/joseba
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas
www.goiena.net/blogak/ohiak
www.goiena.net/blogak/gallastegi
www.goiena.net/blogak/udalatz
www.goiena.net/blogak/vitoria
www.goiena.net/blogak/udalaitz
www.goiena.net/blogak/pando
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria



Goma erre usaina Aramaioako rallysprintean

39 automobilek egingo dute bihar Arrixolan gora; 14:30ean errepidea itxi eta 15:30ean hasiko da proba

XABIER URTZELAI

Laugarren urtez antolatuko du Aramaioako Azpikoracing taldeak rallysprinta. Aurten, gainera, joan den urtean baino lasterkari gehiago izango dira, eta hainbat kategoriatan izango den lehia estuak ikusgarritasunaren alde egingo du. Asteazken zehar izan gara antolatzaileekin; dagoeneko hasi dira motorrak berotzen.

Bihar, 15:30etik aurrera hasiko dira lasterkariak automobilei egurra ematen, eta guztira hiru txanda egingo dituzte. Aurten, baina, noranzko berean egingo dituzte txanda guztiak. Antolatzaileran lanetan ibili diren Julen Agirrerekin, Ander Oionekin, Haritz Astondoarekin eta Kepa Etxebarriarekin egin dugu berba: "Noranzko bakarra jartzea segurtasunagatik da", esan digu Julenek: "Lasterketako seguruak, gainera, hori eskatzen du; bestela, ez zegoen lasterketa aseguratzerik. Izan ere, aurreko edizioan bi noranzkotan egin genuen proba, eta istripu ugari izan ziren".

Arrixola baserrian hasiko dute rallysprinta. Handik Etxaguengo bidegurutzeraino egingo dute, baina Etxaguenera egin beharrean beherantz jarraituko dute, Gantzagako bidegurutzeraino. Hain justu, zati horretan dago bihurgune ikusgarri bat; izan ere, pilotu askok esku-balaztari (esku-freno) tira eginda hartuko dute bihurgu-



Aurten, noranzko berean egingo dute proba osoa, segurtasuna bermatzeko.

nea. Eta hortik aurrerakoa ere ez da makala: Gantzagako ezkerrean utzi eta herrirako bidea hartuko dute, aldapan behera, ziztu bizian.

Santi Artetxe da denbora onena egiteko faborito; 206 WRC autoarekin abantaila dauka

PILOTUEN ARTEAN LEHIA HANDIA

Punta-puntako lasterkariak izango dira bihar Aramaion. Besteak beste, Santi Artetxe izango da Peugeot 206 WRC automobilarekin. Autotzar horrekin, hura da denbora onena egiteko faborito, baina harekin batera izango dira, besteak beste, bi Seat Ibiza Kit-Car, hiru Mitsubishi Evo, beste hiru BMW 325, eta bi Escort Cosworth. Motor handiko automobil horiek proba ikusgarriago egin-

go dute, baina seguruena, lehen mailako automobilaren artean egongo da pike handiena, kategoriatan horretako autoen artean ez dago eta horrenbesteko alderik.


Ibarreko bi ordezkari izango dira: Haritz Errasti (AX Sport) eta Igor Orobengoa (Ibiza GtTDI)

IBARREKO BI ORDEZKARI

Debagoieneko bi ordezkari izango dira biharko lasterketan. Haritz Errasti eta Ander Oion aramaioarrak izango dira euren Citroen AX Sport-ean, eta Garagartzako Orobengoa anaiak Seat Ibiza GT TDI berrian. Bi bikote horiek helburu ezberdinak dituzte. Batetik, Igorrek eta Ikerrek erakutsi gurako dute gasoliozko motordun auto batek zer egin dezakeen. Lehengo Opel Corsari agur esan, eta Garagartzako anaiek apustu sendoa egin dute. Kontuan hartu behar da, baina, *turbodiesel*-ak motor handikoak direla, eta Igorrek eta Ikerrek, besteak beste, Evo VIII bat izango dutela kontrario.

Aramaioarrei dagokienez, Haritzen kopilotuak, Ander Oionek, eman dizkigu euren helburuen berri: "Seguru nago Haritzek podiuma duela buruan, eta azkeneko egunetan jan ere ez duela egingo ondo. Etxean korritzeak hori dauka, baina ez dugu gura joan den urtekoa errepikatzea. Lehenengo txandan azkarrenak izan ginen, baina bigarren txandan kolpe ederra hartu genuen. Aurten ere ez gabilta zorte handiarekin, eta alde horretatik, kontuz ibili beharko dugu".

Kontuan hartu behar da diruz ondo dabiltzanek arriskatzeko tarte handiagoko daukatela, autoari zerbait eginda ere, ez daukatelako konponketa ordaintzeko arazorik. Ibarreko bi ordezkariak, baina, ez daukate horrelako zorterik.



EGUZKIGRAF

inprimategia

1979 urtetik zure zerbitzura

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com





RENAULT
minuto

Irabazi Modus zoragarri hau zure pneumatikoak aldatzean Dunlop ezarriz



Sustapen honek 05/7/31 arte balio du

Eta mantenimenduko berrikustea* egitean, kometa bat opari

Parte hartu ezazu Renault Modus baten zozketan, zure pneumatikoak aldatzean DUNLOP markakoak ipinita, eta eraman ezazu kometa zoragarri bat opari, mantenimenduko berrikusketan olio-aldaketa Elf Competition ST 10W40, Turbo Diesel 10W40, Evolution SXR 5W30 edo Excellium 5W40rekin eginda

RENAULT SERVICIOS. Gelditu ez zaitezen mugitzen gara.

Pieza de Origen **RENAULT**
Espíritu Renault

RENAULT
recomienda **elf**

www.mantenimiento.renault.es

DUNLOP
QUEEN
CONDUCE,
LO BENE.

RENAULT
AUTOBERRI

INSTALAZIO BERRIAK

San Andres Auzoa, 8 - Tel. 943 712 472

ARRASATE

HARATEGI
HAUETAN SOILIK!

ANTZUOLA

- Gabilondo Arregi harategia (A)
Kalebarren 14

ARAMAIO

- Bixente L. Azpilikueta harategia (A)
Bixente Goikoetxea plaza 8

ARRASATE

- Landaluze harategia (A)
Iurriatz 7
- Jose Mari Salegi harategia (B)
Olarite 20
- Azpilikueta harategia (A)
Bañez dokorea 10
- Azpilikueta harategia (A)
Erguin 12
- Kortaberri harategia (A)
Antxo Abarka 1

BERGARA

- Andres Mujika harategia (A)
Domingo Irala 5
- Bixain harategia (A)
Azaka plaza 5-6 postuak
- Aldai harategia (B)
Espaloia 12

ESKORIATZA

- Zubia harategia (B)
Santa Ana 11

OÑATI

- Antxon harategia (A)
San Lorenzo 5
- Tarsicio harategia (B)
Portu 2
- Garai harategia (A)
Maiatzaren Lehena plaza 2
- Super BM Oñati harategia (B)
Olakua 8

(A) ARTISAUAK: Baimendua izateaz gain, Euskal Okelaren eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.

(B) BAIMENDUAK: Euskal Okela saltzeko Hartegi Baimenduak.



EUSKAL OKELA

"Badakigu saltzen dugun okela kalitate handienekoa dela"

Eusko Labela duen bakarra



GRUPO RKUZ

Zure etxea da

1950
2005



GRUPO RKUZ
ALTZARIAK

Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAK

Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



GRUPO RKUZ
SUKALDE INTEGRALA

FAGOR

Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

GRUPO RKUZ
ELEKTROGAILUAK

expert

Andramari auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

Goienka2a

Egubakoitza / 2005eko uztailaren 22a

Kultura
eta
aisialdia



Uztailaren
22tik 31ra



Ingelesa ikasten udalekuetan

Zenbait ikastetxek urtero antolatzen dituzte

Asko aldatu dira gauzak hizkuntza atzerritarrek liburuekin eta gramatika arauekin bakarrik ikasten zirenetik. Orain, ikastetxeek metodo berriak erabiltzen dituzte ikasleei hizkuntzak, batez ere ingelesa, ikasten laguntzeko. Hala, azken urteotan gero eta indar handiagoa hartzen ari den eskaintza da ingelesezko udaleku irekiak: udako beste edozein udaleku bezalakoak dira, baina ikasleek ingelesez bakarrik hitz egin dezakete. Hala, ingelesa erabiltzera ohitzen dira.

Debagoieneko hainbat ikastetxek antolatzen dituzte udaleku hauek. Ikasturteko edukiak ez ahazten eta ulermena eta belarrria fintzen laguntzen diete udalekuek.

Kasu batzuetan ingelesa ama hizkuntza duten begiraleekin, beste batzuetan apropos horretarako hartutako irakasleekin, goiz pasa entretenigarria egin eta ikasitakoa gainbegiratzeko 15 bat laguneko taldeetan. Hizkuntza ondo ikasteko ezinbestekoa da erabiltzea, lotsa alde batera utzita, eta hori ere lantzen dute. /15
LEIRE KORTABARRIA

Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA I. LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta lau sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/udakoargazkiak

Har ezazu parte!

Baldintzak

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Inoiz argitaragabeak.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Argazkiak jasotzeko epea zabalik dago 2005eko irailaren 19ra arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).
- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
 - Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
 - Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
 - Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
 - Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.

- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta jpg formatuan.
- Parte-hartzaileek nahi beste argazki bidali ahal izango dituzte.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, eta abar).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero; azken sorta, irailaren 26ko ASTELEHENEKO GOIENKARIAN.
- Urriaren 3ko ASTELEHENEKO GOIENKARIAN aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epaimahaiak baloratuko ditu: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna..., besteak beste.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAREN artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, betiere egilea aipatuta.

Sariak

1. saria

Olympus E-300 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.

- 8 milioi pixel.
- Zuiko digital 14-45 mm objektiboa.
- Objektibo aldagarriak.
- Flash eta guzti.
- 1,8 pulgadako LCD pantaila atzealdean.



- **2. saria:** bi gaueko/hiru eguneko egonaldia Kantabria edo Asturiasen Eroski Bidaik agentziaren eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- **SARI BEREZIA:** parte hartzaile guztien artean zozketatuko den sari sorpresa.



Babeslea:



gizarte ekintza

Laguntzaileak:

GURE AMETSA
JATETXEAEROSKI bidaiak
merezi duzuMobiliario
ARENZA
ALTZARIAK • DISEINUAkiñu
argazkilariakASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenean egubakoitzera
09:00etatik 21:00etara

HEZKUNTZA/ INGELESEZKO UDALEKU IREKIAK

Udan, ingelesa ikasi jolasaren bidez

UZTAILEAN, ESKOLARA JOATEN JARRAITZEN DUTE IBARREKO UME ASKOK. UDALEKUAK DITUZTE HAN; HORI BAI, DENA INGELESEZ

LEIRE KORTABARRIA

Jolasak, tailerrak, ipuin kontaketa... Edozein udaleku irekitako jarduerak ingelesez egiteko aukera dute urtero Debagoieneko ikasle askok, ikastetxeek antolatzen dituzten ingelesezko udalekuetan. Hala, uztailan eskolara joaten jarraitzen dute ume askok, baina orain, ingelesez jolas egitera.

Dagoeneko ikasturtea ez da ekainean bukatzen 5 urtetik 11 urtera bitarteko debagoiendar askorentako: uztailan jarraitzen du, baina izaera askoz ludikoago batekin. Izan ere, zenbait ikastetxek ingelesezko udaleku irekiak antolatzen dituzte. Goiza ikastetxean pasatzen dute umeek, jolasak, eskulanak, antzezlanak... egiten, arau batekin: egin dezaketenez hizkuntza bakarria ingelesa da.

LOTSA ALDE BATERA UTZITA

Ikastolen kasuan, udalekuok berezitasun bat dute: begiraleak jatorrizko ingeles hiztunak dira. Hala, urtero, 18tik 26 urtera bitarteko hainbat gazte etortzen dira Ingalaterratik, Eskoziatik, Irlandatik... umeekin begirale jarduteko. 10-15 bat laguneko taldetan banatzen dituzte ikasleak, begirale banaren ardurapean, eta ikastolako ingelesezko irakasle bat dago dena koordinatzeko, begiraleekin hartu-eman lanak egiteko...

Hizkuntza bereziki praktikatzeko modua dute ume batzuek, izan ere, begiraleak ikasleen familiariekin bizi izaten dira. Jaione Zubizarreta bergararrak neska ingeles bat du etxean. Beñat 7 urteko semea udalekuetan dabil eta, "dakien ingelesarekin, elkar ulertzea laguntzen du", esaten du Jaionek.



LEIRE KORTABARRIA

Oñatiko Txantxiku ikastolako udalekuetako aurtengo taldea, bost begiraleekin.

Begiraleok umeendako ezezagunak direlako hasieran, eta jatorrizko ingeles hiztunak direlako, lotsatiago egoten dira hasieran, "baina gero konturatzen dira ingelesez hitz egin behar dutela, eta lotsa galduz joaten dira", dio Oñatiko Txantxiku ikastolako aurtengo koordinatzaileak, Ainhoa Arrazolak. Ikastola horretan, udalekuak datorren astean bukatuko dira, baina gaur, egubakoitza, egingo dute gurasoendako ikuskizun bat: horretarako, ingelesezko antzezlan bat lantzen ibili dira egunotan, eta hor erakusten dute udalekuetan landu dutena. "Oso urduri baina oso

pozik egoten dira", diosku Zigor Ibartzabal irakasleak.

Beste ikastetxe batzuetan, ingelesezko irakasle euskaldunak egoten dira umeekin. Baina, bi kasuetan ere, helburua berbera da: jolasen bidez, umeek ikasturtean ikasitakoa gal ez dezatela. Horretarako hainbat sistema dago: esaterako, Bergarako San Martin ikastetxean gaika antolatzen dituzte jolasak. "Egun baten errepasatzen dugu ordua; beste batzuetan, eguraldia, arropen izenak... eta horrekin jolasak egiten ditugu. Gramatika pixka bat ere lantzen dugu, baina oso gutxi. Umeak gero eta askeago

sentitzen dira ingelesez egiteko", dio Maitek, ikastetxe horretan begirale diharduenak.

ENTZUMENA LANTZEA, HELBURU

Ingelezko udalekuek bat egiten dute hizkuntza irakasteko filosofia berriekin. Izan ere, ikasleak 4-5 urterekin hasten dira ingelesa ikasgai moduan hartzen. "Irakasteko modua aldatu egin da. Lehen, gramatika asko irakasten zen, baina ahokotasuna, ulermen, entzumena... ez ziren hainbeste lantzen. Udalekuotan, aldiz, bai. Eleaniztasunaren eta ingelesaren ezarpen goiztiarraren bidetik doaz udalekuak", diosku

Elkar Hezi ikastetxeko Juancar Olaeta arduradunak.

Irakasleek diotenez, gainera, udalekuon eragina sumatzen da hurrengo ikasturtean. Ingelezko irakasleek esaten dutenez, udalekuetan ibili diren umeek igarritzen zaie hobeto moldatzen direla, "batez ere, entzumen aldetik", dio Beatriz Gereka ikastolako ingelesezko irakasle batek. Ikastolen kasuan, Ikastolen Elkarteak bideratzen du programa, eta gero ikasleek galdeketa baten bidez baloratzen dute euren esperientzia. Arduradunen esanetan, askok errepikatu egiten dute, batez ere txikienean.

Begirale eskoziarrak, irlandarrak...

Ikastolek antolatutako udalekuetan, jatorrizko ingeles hiztunak izaten dira begiraleak. Ikasle baten baten etxean bizi dira. Hala, aurtengo bost lagun etorri dira Oñatira, Txantxikura, eta beste lau Bergarara, Aranzadira.

Ikastolen Elkarteak bilatzen ditu begiraleok. Gehienak dira Unibertsitate ikasleak. Baldintzeta bat da umeekin esperientziadunak izatea. Gehienek ez dute espainolez egiten; hala ere, askok dakite ingelesaz gain beste hizkuntza bat: frantsesa, gaelikoa... Kultura aniztasunera ohituta dauden gazteak izaten dira.

Motibazio aldetik, arduradunek diotenez, "argi daukate lanera datozela, eta hori da euren lehentasuna". Hala ere, hemengo giroaz gozatzeko aprobeztatzen dute batzuek ere: hala, joan den astean Antzuolako jaietako giroaz gozatu zuten batzuek.



ARANZADI IKASTOLA

Aranzadi ikastolara etorri diren begiraleak, koordinatzaileekin.

Ikasle nagusiendako

Gero eta goizago hasten dira orain umeak ingelesa ikasten eta hizkuntza horretara ohitzen, eta irakaspen modua ere aldatu egin dira. Udalekuon kasuan bezala, ingelesa egunero, naturaltasunez, erabiltzea da helburuetako bat. Irakasleek dioskuten moduan, udalekuak dira irakaspen prozesuan beste urrats bat.

Udaleku irekietara 10-11 urtera arte joan daitezke ikasleak; adin horretatik gora, beste aukera batzuk dituzte. Hala, nagusitxoagoak direnak ingelesezko koloniak dituzte aukeran. Ikastolek hori eskaintzen dute, Euskal Herriko kostaldeko hainbat herritan. Lehen Hezkuntzako 5. mailatik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila artekoak joan daitezke. Hizkuntza akademia batzuek ere antolatzen dituzte kolonia horiek Euskal Herriko hainbat tokitan.

Uztailak 22-31

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

DEIAK

ANTZUOLA

► **Anelkarren zozketan** honako zenbakiak saritu dituzte: 1.642 (2.323, ordezkoa) eta 1.530 (2.622, ordezkoa). Lehenak nekazal turismo baten asteburuko egonaldia izango du; bigarrenak, bidezko merkataritzako otzara.

ARRASATE

► **Txatxilipurdi elkarteak**, Bartzelona-ko gazteekin elkartrukearen barne, egunero ekintzak egiten dihardu. Gaur, egubakoitza, mendi buelta egingo dute; bihar, zapatua, Zugarramurdira eta Hendaiara txangoa; etzi, domeka, murala; hilaren 25ean, astelehena, baserri bat bisitatuko dute; 26an, martitzena, tailerrak egingo dituzte, eta 27an, eguaztena, zinema eta afari-merienda izango dituzte. Argibideetarako, deitu 943 79 54 46 edo 943 77 17 39 telefono zenbakietara.

BERGARA

► **Bandera eramaileak behar dituzte** San Martin jaietako danborradan. Koadrilak behar dituzte, hain zuzen ere, 14-15 urtetik gorakoak. Izena emateko, joan Udak Kultura Sailera (943 77 91 60 da telefonoa).
► **Arantzazura eta Loiolara erromes** joango dira hainbat bergarar hilaren 25ean, astelehena. Autobusa geltokitik irtingo da 09:30ean, eta Belenguan ere

geldituko da. Autobusa 6 euro da; bazkariarekin, 16. Txartelak salgai daude Agirrebeñan (San Antonio), Zerkauzin (Ozaeta) eta Zatoian (Barrenkalea).

► **Nekazal ordainketa bakarraren** gaineko hitzaldia egingo dute hilaren 26an, kultura etxean, 11:30ean.
► **Bergara Igeri Elkartearen zozketan**, 8.842 zenbakia saritu dute. Irabazleak elkarteko arduradunekin harremanetan jarri behar du saria jasotzeko.

ESKORIATZA

► **Eskoriatzaren eta Ibarraundi museoaren** gaineko DVDa salgai dago museoan. 6 euro da. Uztailean, museoak honako ordutegia du: astegunetan, 09:00-13:30 eta 16:00-19:00; asteburu eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

OÑATI

► **Turismo eskaintza berezia** prestatu du Udalak. Natur ibilbide gidatuak egingo dituzte: bihar, zapatua, basoa eta ikazkintzaren gainekoa egingo dute; etzi, domeka, mendiko larreen eta artzaintzaren ingurukoa; hilaren 30ean, zapatua, Araotzera joango dira; eta 31n, domeka, Arantzazu erreka eta kobazuloak ikustera. Abuztuan ere egingo dituzte ibilbideok. Bestalde, Unibertsitateko informazio guneak honako ordutegia du: uztailean, asteburu eta jaiegunetan, 11:00-14:00; abuztuan, astegunetan, 15:30-19:00, eta asteburu eta jaiegunetan, 11:00-14:00.

IKASTARROAK

ANTZUOLA

► **KZGuneako foroak eta FAQ** delako Internet ikastaroa emango dute KZGunean hilaren 28an, eguena, 11:00etatik 13:00etara. Ikastaroa euskaraz izango da.

ARETXABALETA

► **Honako Internet ikastaroak** emango dituzte egunotan KZGunean: ardoa ezagutzearen gainekoa (hilak 22, egubakoitza, 16:00-18:00); ViaMichelinekin bidaiatzekoa (hilak 26, martitzena, 18:00-20:00); egunkaria irakurtzekoa (hilak 27, eguaztena, 17:00-18:00) eta itsasoaren gainekoa (hilak 28, eguena, 16:00-18:00).

OÑATI

► **Internet ikastaro batzuk** emango dituzte KZGunean: **KZGuneako foroak eta FAQ** delakoa (hilak 26, martitzena, 17:00-18:00); etxebizitza aurkitzekoa (hilak 27, eguaztena, 17:00-18:00) eta egunkaria irakurtzekoa (hilak 28, eguena, 17:00-18:00).

OSPAKIZUNAK

ARETXABALETA

► **Santiago jaiak** izango dira Korueta elizatean astelehenean, hilak 25.

ARRASATE

► **Maalako jaiak** ospatuko dituzte gaur, egubakoitza. Madalena jaiak dira.
► **Ferrerias kaleko jaiak** izango dira hilaren 26an, martitzena. Santa Ana omenduko dute. Egun horretako auzo afarirako txartelak salgai daude Tamayo paper-dendan.

BERGARA

► **Santiago jaiak** ospatuko dituzte Basalgo eta Goimendi auzoetan hilaren 25ean, astelehena.

ELGETA

► **Goimendiko jaiak** egingo dituzte etzi, domeka, eta astelehenean, hilak 25. Santiago omenduko dute.

ESKORIATZA

► **Madalena eguna** ospatuko dute gaur, egubakoitza, Marin elizatean.

OÑATI

► **Madalena auzoko jaiak** ospatuko dituzte gaur, egubakoitza hasi eta etzira, domekara, bitartean.

MUSIKA

ARRASATE

► **Chico Boom** bakarleri donostiarrak –Señor No taldeko kide ohiak– kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 23:00etan.
► **Hainbat DJk** jaialdia egingo dute bihar, zapatua, 3.60 aretoan, gauerdian. Honako disko jartzailak izango dira: Gonzalo Morbid, Alain, Iñaki Abasolo, Haitz, Asier, Koldo, Balza, Ene!, Angel eta Loren.
► **Fjord taldeak** bere azken kontzertua eskainiko du datorren egubakoitzean, hilak 29, 3.60 aretoan, 23:00etan.
► **EEBBko Des-kontrol biraren aurkezpena** delako kontzertua izango da datorren zapatuan, hilak 30, 3.60 aretoan, 23:00etan, eta, segidan, punk oi! festa.



► MUSIKA

HIRU EUSKAL TALDEK HIP HOP FESTA GIROTUKO DUTE OÑATIN

Urtero bezala, kaleko musika emanaldiak antolatuko dituzte Oñatin, Kallean egitarauaren barne. Aurtengo eskaintza indartsuenetarikoa bat izango da hilaren 30ean, zapatua, Larrastegiko plazan (San Anton kalea) egingo duten hip hop festa. Horretarako, hiru talde etorriko dira: M.A.K., Ziburutik (argazkian), Bad Sound System, Irundik; eta Dropezframes, Iruñetik. M.A.K. taldea hardcore estiloko hasi zen, baina orain euskal hip hop panorama indartu gura dute. Hip hop soziala egiten dute, batez ere. Bad Sound System-ek ere salaketa egin eta sentimenduak adierazteko erabiltzen du musika, eta jamaikar eragina sumatzen zaie. Azkenik, Dropezframes bideo jockeyak dira, eta irudiak modu inprobisatua nahasten dituzte.

Non: Oñatin, San Anton kaleko Larrastegiko plazan. **Noiz:** uztailearen 30ean, zapatua. **Ordua:** 22:30.

PIKULITXA ROOT'S

GORLAKO KANTINAN...
20:30etatik aurrera

LA MOSCA
COJONERA IV
(NI FU NI FA Teatro)

TEMPLETON
ROCKER'S
(Bilboke Reggae)

DINGWAHS (Iparaldeko Reggae)

UZTAILAK 30, LARUNBATA
627818212



Monica eta Raul bergararrak bihar, zapatua, ezkonduko dira Santa Marinako elizan. Ospakizuna Zumarragako Etxe-Berri jatetxean egingo dute. Ondoren, eztei-bidaian, Mayar Erriberara joango dira. Zorionak, bikote, lagunuen partetik.




Nekane Martinez bergararra eta **Lander Urtzelai** aretxabaletarra datorren uztailaren 30ean ezkonduko dira. Italiara joango dira eztei-bidaian. Ondo pasa eguna eta zorionak, Marenen, familiakoen eta lagunuen partetik.



Abeto Etxaniz eta **Mirari Juaristi** bergararrak 1980ko uztailaren 24an ezkondu ziren. Domekan, zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte. Meza izango dute Santa Marinaran eta bazkaria Erreki jatetxean. Zorionak, San Lorentzoko koadrilaren, lagunuen eta familiakoen partetik.



Juani eta Nerea oñatiarrak zapatuan ezkonduko dira Arantzazun. Ondoren, Zelai Zabal jatetxean egingo dute bazkaria. Eztei-bidaian Costa Ricara joango dira. Zorionak, bikote. *Eso Epurdis!* Lagunak eta koadrilakoak.



Julian eta Mariflor arrasatearrak 1980ko uztailaren 26an ezkondu ziren Alonsotegin. Beraz, Zilarrezko Ezteiak ospatuko dituzte domekan, hilaren 24an. Ospakizuna Uribarriko elkartean egingo dute, lagunekin eta senideekin. Zorionak, familiakoen partetik.



Felix Uriarte eta **Purita Barrutia** 1955eko uztailaren 30ean ezkondu ziren Bergarako San Pedro elizan. Uztailaren 30ean familiakoekin ospakizuna egingo dute: San Pedron meza eta Gure Ametsa jatetxean bazkaria. Zorionak, familiakoen partetik.

HILDAKOAK

Angel Maria Marzan Otxoa. Bergaran, uztailaren 12an. 57 urte.
Bixente Askasibar Arana. Elgetan, uztailaren 14an. 79 urte.
Margarita Villar Igartua. Arrasaten, uztailaren 16an. 81 urte.
Rufina Larrañaga Arantzabal. Bergaran, uztailaren 16an. 91 urte.
Asuncion Oiaga Olejua. Arrasaten, uztailaren 17an. 63 urte.
Gaspar Cano Fernandez. Oñatin, uztailaren 17an. 72 urte.
Mariano Losada Arteaga. Bergaran, uztailaren 18an. 80 urte.
Paquita Fernandez Cerrato. Arrasaten, uztailaren 18an. 78 urte.
Hilario Carrasco Dominguez. Aretxabaletan, 18an. 80 urte.
Maria Ugarte Arregi. Oñatin, uztailaren 20an. 86 urte.
Ivan Ramos Rodriguez Arrasaten, uztailaren 20an. 68 urte.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIAREN ordezkarietako batera.

GOIENKARIA

Astero
18.500 etxetan.

Eskelen prezioa:
82 €.



Jasone Ruiz eta **Aitor Urtzelai** oñatiarrak joan zen uztailaren 9an ezkondu ziren Oñatin. Ospakizuna egin ondoren eztei-bidaian Kenyara joan zen bikotea. Bidaia gozatu dutelakoan eta oso zoriontsu izango direlakoan, zorionak eta besarkada handi bat, lagunuen partetik.

ESKER ONA

Mariano Losada Arteaga

Bergaran hil zen 2005eko uztailaren 18an, 80 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko uztailaren 22an.

ESKER ONA

Angel Maria Marzan Otxoa

Palentzian hil zen 2005eko uztailaren 12an, 57 urte zituela.

Haren arimaren aldeko elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko uztailaren 22an.

ESKER ONA

Margarita Urtzelai Alberdi

Luki Garilagoitiaren alarguna

Bergaran hil zen 2005eko uztailaren 11n, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko uztailaren 22an.

ESKER ONA

Adolfo Carmona Alonso

Arrasaten hil zen 2005eko uztailaren 5ean, 71 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2005eko uztailaren 22an.

URTEURRENA

Felix Garai Igartua

Lehen urteurreneko meza astelehenean, uztailaren 25ean, 12:30ean, Arrasateko San Frantzisko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Felisa Juana Egiguren Alberdi

2004ko abuztuaren 9an hil zen, 73 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza abuztuaren 14an, domeka, 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.




GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA

Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
Bonni Laskurain 3 BERGARA

943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA



Ilearen barne egituratik abiatuz egin behar dira tratamenduak.

Arazoak ilearekin

GALDERA:

Buruko ilea jausi egiten zait; eta aurpegian eta zilborrean, berriz, irten egiten zait ilea. Hasieran pintzekin kentzen nituen ileak, baina gero argizariarekin. Orain berriz, bizar xafiarekin kentzen ditut. Lotsa handia ematen dit jendeak aurpegira begiratzea, tximua ematen dut eta.

Amaia

hasieran ile fina badaukazu 8-10 ile eta beraien artean ile beltz batzuk litekeena da dena kendu ostean 80-90 ile izatea.

Lehen esan dizudan moduan, aurpegiko ileak ez dira inoiz pintzarekin kendu behar, baina kentzen hasi zarenez jarraitzea gomendatzen dizut. Ile guztiak kanpoan daudenez, ez dira gehiago irtengo.

Zilborreko ilea laser bidez kentzea gomendatzen dizut, azkarra eta segurua da eta. Amaia, lehenengo zergatiak jakin behar dira eta gero soluzioak. Hori konpon daiteke, eta behar duen denbora emanda konponduko da, ze nik nire lanean ez baitut hutsik egiten.

Ilea berritua landa daiteke? Bai, berritua landa daiteke, ikusi ditugun kasuek oso erantzun ona eman dute; ile naturalaren birlandaketa onena norberaren garondoko ilea birlandaketa da, zeren ile sintetikoak artifizial itxura baitauka.

Tratamendu oso onak irten dira erantzun oso ona ematen dutenak (ez dizute buru guztia ilez beteko, baina ilearen bolumena, ehundura eta indarra hobetu egiten dira), ilea sendotu egiten da eta ez da jausten.

Ilea birlandatzeko Bartzelonara joatea gomendatzen dizut.

Ondo ibili oporretan.



Maria Isabel Hurtado
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Ibai-ontzia		*Izena		Zein lekutara
	Dogma, arau		Arre, gris		
	Oihan				
	Laguntza				
Jatekoa	Motz				
Barre-hots	Preso				
				Anperea	
				Gura, desira	
Umea, seina					Onartzeko ekintza
Batzorde, kontseilu					
			Polonia		
			Zentzudun		
*Deitura	Ald, modu atzikia		Izaera on		
	Oinarriko osagai		Peruko hiriburua		
Listu		Argi-izpi			
Eraso		Nafarroako urtegia			
		Letra izena		Fosforoa	
		Zilarra		Nori atzikia	
Sarraski					
Bogatzeke ekintza					
			Hankaren atal		

BILABILATZ



UMOREGIROAN

Kike Amonarriz



BOTIKAN POTIKAN

Farmazialari gaztearen lehen eguna da botikan.

Nagusia farmazian aritzeko oinarriko ezagupenak eta "etxeko arauak" ari zaizkio esplikatzeko, gaztea izaki hanka sartuko ote duen beldurrez: botikak non dauden, zertarako balio duten, bezeria hartzeko moduak, medikamentuak banatzeko irizpideak...

Bat-batean, oso kolore biziko eta itxura nazkagarri samarreko likidoak dauden apal baten aurretik pasa dira:

- Eta botika hauek? — galdetu du inozentzia osoz aprendizak—.

- Errezeta irakurtzerik ez dagoenerako!

ISUNA

N-lean Andoaindik Donostiarako zatian, abiadura orduko 80 kilometrorara mugatu dute.

Joan den astelehenean, Bazkardo inguruko bihurtugetako baten ertzean, ertzainak zeuden zirkulazioa kontrolatzen. Bat-batean, gutxienez orduko 120 kilometrorara zihonan auto bat pasa zen ziztu bizian. Eta ertzain batek besteari:

- Baina horri ez al genion gidabaimena joan den astean kendu?

- Bai, bera da! Harrapatu egin behar dugu!

Ertzainak autora sartu, sirenak eta argiak piztu eta Lasarteko gasolindegian paretan gerarazi zuten autoa:

- Eta gidabaimena? — galdetu zion ertzainetako batek—.

Eta gidariak erantzun:

- Zer ba? Galdu egin al duzue edo?

SOLUZIOAK

N	I	O	A	G	O	B
E	R	A	S	A	M	
P		E	M	E	O	J
R						
A						
T						
N						
P						
A						
A						
R						
O						
N						



Uztailaren 25a: 053 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa


Sariak astero!

Astelehenean, uztailak 25, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.


Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Uztailaren 25eko sariak



- Sei gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).



TUNISIARA BIDAIA ZORAGARRIA!

Bi lagunendako bidaia zoragarria zozketatuko dugu irailean, ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunen artean. Zorte on!

Laguntzailea: **VIAJES IBERIA**

BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Kuota:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

052
zozketa
saridunak

Hauk izan dira aurreko zozketako irabazleak. Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

- Aritz Ugarte Lizarraga (Bergara)
- Trini Galdos Urtzelai (Oñati)

ISTILU etxeko kamiseta bat.

- Iñigo Biain (Oñati)



'Marrazki bizidunak'
ASTEBURUA / *ikus beheko taula



'Berriak'
EGUNERO / *ikus beheko taula



'Harmailatik'
EGUZTENA, 27 / 21:30 eta 23:00



'Marrazki bizidunak'
*ikus beheko taula

'Ipar haizearen erronka'-ren azkeneko kapituluak

Oraingo asteburuan izango dituzue *Ipar haizearen erronka* marrazki bizidunen azken kapituluak. *Bahiketa eta Denok ipar haizearen aurka* dira azkeneko bi kapitulu horien izenburuak. Ez galdu!

Eskualdeko informazio guztia 'Berriak' saioan

Albistegiak dira GOITBko ardatz. Eguedietan, *Berriak aurrerapena* duzue Julen Iriondoren eskutik. Arratsaldeko 8etan, berriz, Deiane Arrietak egunak emandako guztiaren berri eskainiko dizue *Berriak* tartean.

Ordiziako Klasikoa ikusteko aukera izango duzue

Profesional mailako talderik onenak elkartuko dira datorren astelehenean, hilak 25, Ordizian. Urtero moduan, Ordiziako Klasikoa egingo dute. Goierri Teletari esker, GOITBk ere lasterketako irudirik esanguratsuenak eskainiko dizkizue.

'Kazetari ausartak' marrazki bizidun berriak

Sherezade printzesa agurtu eta *Kazetari ausartak* izeneko marrazki bizidunei egingo diegu ongietorria GOITBn. Gaztetoendako marrazki bizidun horietan, misterioz beteriko kasuak argitu beharko dituzte kazetari bik.

TELEBERRIAK

Agur 'Cronicas Marcianas' saioari

Atzo eskaini zuten *Cronicas Marcianas* saioaren azken atala. Horrenbestez, agur esan digute bai saioak eta baita aurkezle Javier Sardak ere, antenan zortzi urtez jarraian egon otean. Sardak esan du "atseden psikologikoa behar" duela; harekin batera saioaren protagonista izan den Boris Izagirrek, berriz: "Kontserbadurismo beldur-garria egon da urteotan, eta saioa arnasbidea izan da belaualdi batentzat"; Carlos Latrek, ostera: "*Gerrari ez eta umoreari bai* oihukatu dugu beti; jendeak faltan igarriko gaitu". Udazkenetik aurrera, saio horren orde gau bakoitzean saio bat eskainiko dute Tele5en, astelehenetik eguenera. Horietako bat Manel Fuentesek gidatuko du.

Iban Garatek parte hartuko du 'Martin' telesailaren atal berrietan

Miramongo estudioetan grabatzen dihardute ETBko *Martin* telesailako atal berriak. Hainbat berri-tasun izango ditu saioak, eta horien artean, aktore lanetan Iban Garate ere ariko dela. Iban Garate Manu izango da, Janisi, Martinen alabari, etxean klaseak emango dizkion irakaslea. Oraingoan ere, atal bakoitzean kolaborazio bereziak izango dira ikusgai. Aurretik ere, Euskal Herriko pertsona ezagunek hartu dute parte: Jose Luis Kortak, Martxelo Otamendik, Anne Igartiburuk, Xabi Alonsok, Westerveld-ek...

ASTEKO PROGRAMAZIOA / Uztailaren 22tik 28ra

EGUBAKOITZA 22	ZAPATUA 23	DOMEKA 24	ASTELEHENA 25	MARTITZENA 26	EGUAZTENA 27	EGUENA 28
13:50 Marrazki bizidunak: Sherezade eta Lazkao Txiki 14:15 Berriak 14:45 Chiloé: Damasko, kultura arragoa 15:15 Jaiak 2005: Antzuola 15:45 Berriak 16:15 Klip@ 19:40 Emisio hasiera 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrazki bizidunak: Sherezade eta Lazkao Txiki 21:00 Eguzki lore: Santa Grazi 21:30 Ilunpean: Gari 22:00 Berriak 22:30 Eguzki lore 23:00 Ilunpean 23:30 Emisio amaiera	11:05 Marrazki bizidunak: Sherezade eta Lazkao Txiki 13:00 Ilunpean 13:30 Harmailatik: Tourra 14:30 Jaiak 2005: Antzuola 15:00 Klonk: Hip-hop ikuskizuna 15:30 Marrazki bizidunak: Ipar haizearen erronka 16:30 Jaun ta jabe 17:00 Ilunpean 17:30 Klip@ 17:45 Jaiak 2005 18:15 Marrazki bizidunak: Iratxo Magikoa eta Lazkao Txiki 19:45 Chiloé 20:15 Klip@ 20:30 Eguzki lore 21:00 Harmailatik: Tourra 22:00 Emisio amaiera	11:05 Marrazki bizidunak: Ipar haizearen erronka 12:00 Marrazki bizidunak: Iratxo Magikoa eta Lazkao Txiki 13:30 Chiloé 14:00 Jaiak 2005 14:30 Eguzki lore 15:00 Marrazki bizidunak: Ipar haizearen erronka 16:00 Harmailatik: Tourra 17:00 Marrazki bizidunak: Sherezade 18:30 Klip@ 18:45 Ilunpean 19:15 Marrazki bizidunak: Iratxo Magikoa 20:45 Jaun ta jabe 21:15 Harmailatik: Tourra 22:15 Jaiak 2005 22:45 Emisio amaiera	11:05 Marrazki bizidunak: Sherezade eta Lazkao Txiki 13:00 Ilunpean 13:30 Harmailatik: Tourra 14:30 Jaiak 2005: Antzuola 15:00 Klonk: Hip-hop ikuskizuna 15:30 Marrazki bizidunak: Ipar haizearen erronka 16:30 Eguzki lore 17:00 Ilunpean 17:30 Klip@ 17:45 Jaiak 2005 18:15 Marrazki bizidunak: Iratxo Magikoa eta Lazkao Txiki 19:45 Chiloé 20:15 Klip@ 20:30 Jaun ta jabe 21:00 Harmailatik: Tourra 22:00 Emisio amaiera	13:50 Marrazki bizidunak: Iratxo Magikoa 14:15 Ilunpean: Gari 14:45 Eguzki lore: Santa Grazi 15:15 Klip@ 19:40 Emisio hasiera 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrazki bizidunak: Iratxo Magikoa 21:00 Jaiak 2005: San Juanetako bertso saioa 22:00 Berriak 22:30 Jaiak 2005: Klonk, Trio Chamuyo eta Elliot Murphy 23:00 Bertsolaritza: Ordiziako bertso saioa 23:30 Emisio amaiera	13:50 Marrazki bizidunak: Kazetari ausartak eta Lazkao Txiki 14:15 Jaiak 2005: Klonk, Trio Chamuyo eta Elliot Murphy 14:45 Bertsolaritza: Ordiziako bertso saioa 15:15 Klip@ 19:40 Emisio hasiera 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrazki bizidunak: Kazetari ausartak eta Lazkao Txiki 21:00 Chiloé: Palmira, elezaharretako hiria 21:30 Harmailatik: Ordiziako klasikoa 22:00 Berriak 22:30 Chiloé 23:00 Harmailatik: Ordiziako klasikoa 23:30 Emisio amaiera	13:50 Marrazki bizidunak: Iratxo Magikoa 14:15 Chiloé: Palmira, elezaharretako hiria 14:45 Harmailatik: Ordiziako klasikoa 15:15 Klip@ 19:40 Emisio hasiera 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrazki bizidunak: Iratxo Magikoa 21:00 Jaun ta jabe: Koadro berriak 22:00 Berriak 22:30 Jaun ta jabe 23:30 Emisio amaiera
21:00 Eguzki lore	18:45 Marrazki bizidunak	21:15 Tourra	15:00 Klonk	21:00 Jaiak 2005	21:30 Harmailatik	21:00 Jaun ta jabe

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95

KAMERAURREAN



"Arrasaten arazo benetan larria dugu aireko kutsadurarekin. PM10 izeneko partikulek onartutako muga gainditu dute askogatik. Eta arazoak herri guztiari eragiten dio".

Joseba Ugalde / Ingurumen zinegotzia 'Berriak' (2005/07/19)



"Mankomunitateak zera esan digu: zuek ekarri ganadua eta guk hilko ditugu. Hori ez da plangintza bat, hori niri behintzat txiste bat iruditzen zait".

Mari Karmen Iturbe / Hiltegia bizirik plataforma 'Berriak' (2005/07/20)

TELEBEGI / Oihana Elortza

Bai baina ez

Gustatzen zait txirrindularitza eta aurtengo Tourra ere jarraitu dut. Telebistaz batez ere. Lantokian ere egunero piztu dut telebista etapa ikusteko, eta lepoa okertuta atzera begira ibili naiz egun hauetan, bizkarra ematen baitiot telebistari. Baina bertatik bertara ere ikusi dut, Saint Laryn amaitu zuten etapan. Hango giroa, lasterketako muntaia, motorrak, antolatzaileak, kanpin dendak, botilak, eguzkia, karabana, jendarmeak eta txirrindulariak ikusi genituen, besteak beste. Lasterketaz, ordea, gutxi enteratu ginen. Inguruko batzuek bazuten irratia eta haiek frantsesez mintzo zen kazetari bati ulertzen ziotena zen gure informazio bakarra. Telebista izan bagenu denetaz enteratuko ginatke, agian, baina ez zen berdina izango, hango giroa ez genuke berdin biziko. Horrenbeste jende batzen duten ekitaldiak ondoen telebistaz ikusten direla dio batek baino gehiagok. Haietaz gogoratu nintzen Pirinioetan, baina momentu batean bakarrik; hango saltsa ikusita asteleheneko laburpenez gogoratu nintzen segidan.





Añai erretegia

Eskaintza **Nardeaga 32 / ARAMAIO**
945 44 51 01

- Bataio eta jaunartzeak
- Kintadak
- Karta

Berezitasunak

- Arraina eta okela parrillan
- Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik



Baster-Alde

Eskaintza **Galartza auzoa / ARETXABALETA**
943 79 24 58

- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita



Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BIM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

Txinatar jatetxea

Eskaintza

- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

Eguneko menua eta karta



Eguzkitza erretegia

Eskaintza **Arane Erreka 30 / BERGARA**
943 76 97 01

- Eguneko menua
- Karta
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak

Berezitasunak

- Behi txuleta
- Bakailaua

Martitzenetan itxita



Gure Ametsa jatetxea

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza

- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita



Larrinetxe jatetxea

Eskaintza **Udala auzoa / ARRASATE/ 943 79 22 15**
www.larrinetxe.com

- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

Berezitasunak

- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

Martitzenetan itxita



Unzueta jatetxea

Eskaintza **Zabola auzoa / ARAMAIO**
945 44 50 95

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik



Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa 1 / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita

Atzeskua

EDU MENDIBIL

Xabier Lijo/ Mendizalea eta korrikazalea

Pirinioetako zeharkaldia egingo duzu abuztuan.

Bai, Hondarribitik Gironara, Cap de Creusera. 850 kilometro inguru dira eta 16 egunean egiteko asmoa dut. Bakarrrik joango naiz, hurrengo asteburuan. Beste bitan egin dut zeharkaldi hori: 1993an Iker Etxebarria lagunarekin eta 2003an bakarrrik. Hala ere, orain dela bi urte zatika egin nuen, ez jarraian oraingoan bezala.

Zer eskaintzen dizu mendiak?

Askatasuna eta barruko bakea. Oso gustura ibiltzen naiz mendian.

Pirinioak ondo baino hobeto ezagutzen dituzu.

1992an ekin nion Pirinioak hobeto ezagutzeari. 3.000 metrotik gorako 212 mendi daude eta horietatik 60 ezagutzen ditut. Askotan egon naiz hango bailara eta mendietan. Izugarri gustatzen zait hara joatea.

Zer eramango duzu motxilan?

Beharrezkoak diren gauzak bakarrrik: txamarra, kamisetak, lo egiteko zaku txiki bat, eguzkitarako kremak... 6-9 kilo bitarteko motxila eramango dut. Ahalik eta arinen ibiltzea komeni da.

Eta zer ez da falta sekula zure motxilan?

Botikina eta orientaziorako GPS aparailua.

Izarpean lo egitea atsegin duzu?

Bai, eta alboan lagun bat izanda, askoz ere ederragoa da zerua.

Ezagutzen dituzun mendietatik, zein atsegin duzu gehien?

Midi D'Ossau da politena, nire ustez. Eta inguruko etatik Udaltax asko gustatzen zait, oso zorrotza da.

Eta zein daukazu egiteko oraindik?

Cervinora joan nahi nuke.

Dantzazalea zara. Mendian badago dantzazterik?

Ez dut motxilan musika eramaten, baina musika entzunez gero, dantzan has naiteke mendian ere. Berez irteten zait, barnean daradaman zerbait da.

Mendian ondo jaten duzu?

Bai, bidean diren ostatueta eta aterpetxeetan jaten saiatzen naiz. Visa txartela mendian ere beharrezkoa da. Baina jateko asuntan ez dut larritasunik izaten. Jatun ona naiz, eta indarrak errekueratu behar dira...

Mendiko lasterketetan ere bazabiltza. Zenbat kilometro egiten duzu astero?

95-110 artean. Mendian eta lauan korritzeaz gain, gimnasia joaten naiz lasterketak ondo gertatzeko. Aurten mendiko zazpi lasterketetan izan naiz eta hurrengo irailaren 10ean egingo dut, Baigorriko ultra-maratoia. 70 kilometro lasterketa da, eta Pirinioetako zeharkaldia ondo etorriko zait proba hura gertatzeko.

Zenbat zapatila gastatu dituzu aurten?

Lau pare dauzkate etxean. Aurten pare bakarra apurtu dut. Nahikoa sufritzen dute bai mendiko zapatilek.



“Hondarribitik Gironara, Cap de Creusera, joango naiz oinez. 16 egunean 850 kilometro inguru egiteko asmoa daukat”

“Askatasuna eta barruko bakea izaten dut mendian. Gustura ibiltzen naiz han”

“Bidean diren ostatueta jango dut. Visa txartela mendian ere beharrezkoa da”

► Bergara / 38 urte / Mendiko lasterketetan dihardu

PIPERRAUTSA

Indartsu

Azken alea duzue hau opor aurretik. Aspalditxo usaintzen da udako etenaldia: jaiak, beroa, txankletak eta tiranteak, paga doblea, bidai agentzien iragarkiak... Baina orain, gainean ditugu oporrak. Debagoiena hustuko da, gelditzen garenok patxadan emango dugu abuztua, eta zoaztenei bejondeizuela egin duzuen planak!

Hori bai, deskantsua hartzeko bezainbat, aprobe-txatu etenaldia gogoa indartzeko eta pila kargatzeko. Sindikalgintzari zor izan zaion *udazken beroa* aurten politikak agintzen digu. Mugimendu asko espero daiteke arlo horretan, eta erne beharko dugu hiritarrok, komeni direnak eragiteko eta besteak galarazteko.

Hurbil ikusi zen Sahara librea Musakolako jaian, itxaropentsu hitz egin zuten. Baina beharko dute denon laguntza, konponbidea ekartzeko. Baliteke udazkenean deialdiren bat egitea, gure indarraren eske.

Eta, etxeko kontuetan, ea sukaldetik zerbait irteten den, aperitibo besterik ez bada. Eta ea aukeraren bat eskaintzen diguten hiritarroi adierazteko akordio asko eta zabalak nahi ditugula, eta horrekin batera behar dugula gure borondate kolektiboari errespetua.

Gogoratu, baina, zauden tokian zaudela, politikan ez direla aldatetaz berez etortzen, ekarri egin behar direla. Eta sendoagoak direla hiritarrok eragindako urratsak, politikariek egindako tratuak baino. Beraz, ondo pasa, baina itzuli indartsu.

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Asteleheneko Goienkariarekin, Tunisiara bidai zoragarria irabaz dezakezu.

Egin zaitetz **Asteleheneko Goienkaria**-ko harpidedun, eta bi lagunendako Tunisiara bidai zoragarria irabazi ahal izango duzu.
Ez galdu aukera. Harpidetu zaitetz!

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Goienkaria
 astelehenean, aste bukaera osoa

Laguntzailea: **VIAJES IBERIA**

